

Euskaldun- goaren alde

Gaur egunean, zorionez, Euskal Erri guztira zabaltzen doguz, sarritan, begiak.

Beste dinamika baten ardatzean goaz. Dinamika honegaz bakarrik ezagutu geinke, osorik, gure Erri hau, mugaz haraindikoa eta hemengo. Ezagutu daigun Bilbao, urtero 10.000 bizilekutik gora egiten diran Erdalerra hori. Ezagutu daiguzan Zuberoa, Lapurdi... tan hango lan-tegirik-eza, ta gaztedi faltea. Bat gara, ez ahaztu. Baina, gaur beste zer edo zer ikustea be nahi neuke: Nafarroaren* goi-aldea. Auritze (Burguete), Aurizpari (Espinal), Garralda, Arike, Abaurre, Otxagabia... Euskaldunak dira ala ez? Itaun larria hauxe. Erantzuna, bakoitzaren pentzura. Nik hauxe bakarrik dakit. Hemengo zaharrekin berba egin dot. Nire itauna, bat bera zan beti: eta, zoritxarrez, euren erantzuna bere bai.

- Eskuaraz mintzatzen* zizte?
- Zaharrak mintzatzen gire, bai; baina, gazte jendeak ez du ezagutzen. Batzuek konprenitzen dute, baina gutti.

Lanak ditu euskera irauteak* hemen. Gazteak ez dakie. Euskeraren katea ausi egingo da gutxi barru. Ausi egingo da, guk erremedio bide bat esartzen ez badeutsagu. Zein? Danon artean pentsatu daigun. Eta gutxienez, asi gaitez an alderdi hori begiratuaz. Ez ote* da egia, Nafarroa ahazturik daukagula, gure planteamentu asko egiteko orduan?

Batasun kontzientzia iratzarri behar dogu gure barruan. Kontzientzia hau, apur bat, Euskal Erria ezagutzearekin biztuten da. Har aukera bat: gure ibilaldiak eta eskursionak hor ez-dakit-nora egin beharrean, hona egin. Alkar ikusiaz, ezagutzeagaz, antzinakoak ondo esaten ebenez, maitasuna sortzen da.

Alderdi zoragarria da hau benetan.

Joan Maria Torrealdai
Auritzen, 69-IX-19

EUSKAL HIT PARADE

Zein dozu abestirik maiteena?.....

Eta zein abeslaririk maiteena?.....

Bidaldu txartel hau azaroaren 5-ta baino lehenago "ANAITASUNA-RA", Apartado 17.-GALDAKANO

Gero zozketa bat egingo dogu; ta **bost zorionekoentzat** "Anaitasunaren" urteko ordainbeharra dohan izango da.

Abeslari barriak



NATXO de FELIPE
20 urte, meriku ikaslea, "Abra - ko II-garren Abesti Sari ketearen irabazlea. ZUZENBIDEA: Bidebarrieta, 14-1. Bilbao. Urrutizkina: 21 14 91

Bizkaiera idatziaren batasuna

"ANAITASUNA" ALDIZKARIRAKO. 1969

Gure arauak, guztiz arduragarriak batez be gure aldizkarian idatzi nahi dabenentzat.

Eskatu: Apartado 17 - Galdakano
Salneurria: 15 peseta